

# “GESTIOKO ESKALA TEKNIKOA (PREBENTZIOA)” LAN-POLTSA HANDITZEKO HAUTATZE-PROZESUA

**LEHEN PARTEA – TEORIKOA**

**2021EKO URTARRILAREN 28ko EBAZPENA**

**AZTERKETAREN DATA: 2021/06/25**



## ARIKETA TEORIKOA

### 1.OME Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, hau da osasuna:

- a) Kalterik eta gaixotasunik ez izatea.
- b) Ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera da, eta ez bakarrik kalterik eta gaixotasunik ez izatea.
- c) Ez da kontzeptu integratzaile bat.
- d) Ez ditu kontuan hartzen alderdi psikiko eta sozialak.

### 2. Zuzenean edo zeharka langileen osotasun fisikoari eragin diezaioketen laneko arrisku eta baldintza material guztiak aztertzen dituen prebentzio-diziplina.

- a) Laneko segurtasuna.
- b) Higiene industrialak.
- c) Laneko medikuntza.
- d) Ergonomia eta psikosoziologia.

### 3. Laneko arriskua:

- a) Lanaren ondorioz langileak kalteren bat izateko posibilitatea.
- b) Kaltea —lesioak, alegia— eragin ditzakeen egoera.
- c) Ez da ebaluatzen.
- d) Arriskua eta arriskubidea kontzeptu bera dira.

### 4. Segurtasun-ikuskapenetan, zein d(ir)a informazio-iturria(k)?

- a) Dokumentuen ikuskapena.
- b) Analisi estatistikoa.
- c) Zuzeneko analisia.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

### 5. Intzidentzia-indizea

- a) Denbora-tarte batean erregistratutako istripu kopuruaren eta kontuan hartutako arriskuaren eraginpean dauden pertsonen batez besteko kopuruaren arteko erlazioa da.
- b) Istripu bakoitzak iraun duen batez besteko denborari buruzko informazioa ematen digu.
- c) Enpresa bateko istripu-tasa adierazten du.
- d) Arriskuaren eraginpeko mila orduko galdutako lanaldi kopurua adierazten du.

### 6. Babes kolektiboko ekipamenduak.....

- a) Ez dira inoiz lehenetsi behar norbera babesteko ekipamenduen aurrean.
- b) Lehenetsuna eman behar zaie norbera babesteko ekipamenduen aurrean.
- c) NBEen lehenetsun bera dute.

- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**7. Norbera babesteko ekipamendu bat hautatzeko, hau hartu behar da kontuan:**

- a) Arrisku-egoera batek behar duen babes-maila.
- b) Arrisku-egoera baten aurrean ekipamenduak eskaintzen duen babes-maila.
- c) NBEak ekoizpen-prozesua oztopatzea saihestea.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**8. Esku-eskailera batean lan egitean, ezin bada erabili esku bat eusteko...**

- a) Segurtasun-arnesa erabili behar da, eskailerari lotua.
- b) Segurtasun-arnesa puntu finko bati lotua erabili behar da, ez eskailerari lotua.
- c) Aurreko biak zuzenak dira.
- d) Lehen bi erantzunak okerrak dira.

**9. Arrisku elektrikoak: babes hauetako zeinek babesten du zuzeneko kontaktuen aurka?**

- a) Etengailu diferentziala.
- b) Etengailu magnetotermikoa.
- c) Lur-konexioa.
- d) Errele termikoa.

**10. MESERI**

- a) Sute-arriskua ebaluatzeko metodo bat da.
- b) Laneko arriskuak ebaluatzeko metodo bat da.
- c) Arrisku elektrikoak ebaluatzeko metodo bat da.
- d) Hutsegite-zuhaitzean oinarritutako metodologia bat da.

**11. Pertsona batek 6 orduz lan egiten du prozesu batean, non muga-balioa duen substantzia baten eraginpean baitago. Denboraldi horretan batez besteko kontzentrazio haztatua  $0,4 \text{ mg/m}^3$  da. 8 orduko batez besteko esposizio haztatuaren balioa hau da:**

- a)  $0,3 \text{ mg/m}^3$ .
- b)  $0,9 \text{ mg/m}^3$ .
- c)  $1,5 \text{ mg/m}^3$ .
- d)  $0,1 \text{ mg/m}^3$ .

**12. Jotzen da ..... kg baino gehiagoko karga orok (LSHIN institutuaren Gida Teknikoa) bizkar eta gerrirako arriskua izan dezakeela**

- a) 0,5 kg.
- b) 3 kg.
- c) 15 kg.
- d) 25 kg.

**13. UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuak era honetako prebentzio-zerbitzu gisa eratzen da:**

- a) Kanpoko.
- b) Propioa.
- c) Misto.
- d) Mankomunatua.

**14. Nork onartzen du UPV/EHUn Laneko Arriskuak Prebenitzeko Plana eta haren aldaketak?**

- a) Errektorea.
- b) Zuzendaritza Kontseilua.
- c) Gizarte Kontseilua.
- d) Gobernu Kontseilua.

**15. Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, laneko arau-hauste larria da...**

- a) Langileen osasun-egoera aldizka zaintzeko azterketa medikoak eta probak ez egitea, laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudiaren arabera egin beharrekoak direnean, edo ukitutako langileei emaitzak ez jakinaraztea.
- b) Haurdunaldian eta edoskitzaroan emakume langileen segurtasuna eta osasuna babesteko arau espezifikoak ez betetzea.
- c) Lantokia garbi ez izatea, langileen osotasun fisikorako edo osasunerako arriskurik sortzen ez badu ere.
- d) Kontratistak edo azpikontratistak erabiltzen duen makineria baduela frogatzen duen dokumentazioa edo titulua eta indarrean dauden legezko xedapenetan eskatzen diren agiri guztiak ez izatea.

**16. Funtzio hauetako zein ez du barne hartzen prebentzio-jardueraren oinarritzko mailak?**

- a) Jokabide seguruak eta lan- eta babes-ekipamenduen erabilera zuzena sustatzea, eta langileen interesa eta lankidetza sustatzea prebentzio-ekintza integratu bat izateko.
- b) Prebentzio-zerbitzuekin elkarlanean aritzea, halakorik bada.
- c) Enpresaren arrisku orokorren eta espezifikoaren ebaluazioan eta kontrolean laguntzea, horretarako bisitak eginez, kexa eta iradokizunei arreta eskainiz, datuak erregistratuz eta behar diren antzeko eginkizunak betez.
- d) Arriskuak kontrolatu edo murriztearren jarduera desberdinak egin behar direnean, haietan zenbait espezialistak parte hartu behar dutela, egin beharreko prebentzio-ekintza planifikatzea.

**17. Bulegoko lanen tankerako lan sedentarioak egiten diren lokaletako tenperaturak balio hauen artean egon behar du:**

- a) 20 eta 25 °C artean.
- b) 15 eta 22 °C artean.
- c) 18 eta 24 °C artean.

d) 17 eta 27 °C artean.

**18. Laneko lokal itxien hezetasun erlatiboak balio hauen artean egon behar du:**

- a) % 40 eta % 80 artean.
- b) % 30 eta % 70 artean.
- c) % 30 baino gutxiago.
- d) % 50 eta % 80 artean.

**19. Espainiako 1978ko Konstituzioaren arabera:**

- a) 22. artikuluan, elkartzeko eskubidea aitortzen da.
- b) 27. artikuluan, irakaskuntza-askatasuna aitortzen da.
- c) 27. artikuluan, unibertsitateen autonomia aitortzen da, legeak ezartzen duen moduan.
- d) Aurreko hirurak zuzenak dira.

**20. Langileak eskubidea izango du bere jarduera eteteko eta, beharrezkoa bada, lantokitik alde egiteko, jarduera horrek bizirako edo osasunerako arrisku larria eta berehalakoa dakarkiola uste badu.**

- a) Beti.
- b) Eraikuntzaren sektoreko enpresetan bakarrik aplikatzekoa da.
- c) Baldin eta prebentzio-arduradunak oniritzia ematen badu.
- d) Industriaren sektoreko enpresetan bakarrik aplikatzekoa da.

**21. Euskal Funtzio Publikoaren Legeari dagokionez, adierazi zein den erantzun zuzena.**

- a) Lanpostuen zerrenden bidez Euskal Administrazio Publikoek arrazionalizatu eta antolatu egiten dituzte barneko egiturak, langileen beharrak zehazten dituzte, lanpostu bakoitzerako eskatzen diren betekizunak definitzen dituzte eta lanpostu horietako bakoitza sailkatzen dute.
- b) Lanpostuen zerrendetan aurrekontua duten lanpostu guztiak jarri beharko dira, funtzionarioentzat gordetako lanpostuak langile finkoei dagozkienetatik eta aldi baterako langileei dagozkienetatik bereizi gabe.
- c) Lanpostuak ezin egon daitezke Talde bati baino gehiagori atxikita.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**22. Desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak: eraginaren ebaluazioa kontuan hartuta, administrazio-arau edo -egintzaren proiektuan neurriak sartuko dira, hau lortzeko:**

- a) Emakumeek eta gizonen kolektibo modura hartuta bizi duten egoeran izan dezakeen eragin negatiboa ahalik eta gehien neutralizatzeko.
- b) Antzemandako ezberdintasunak gutxitu edo ezabatzeko.
- c) Sexu-berdintasuna sustatzeko.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**23. EHUko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Plana (2019-2022): Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2012 Legeak hamahirugarren xedapen gehigarrian ezartzen du genero-ikuspegia zeharkako kategoria gisa ezartzea (5. atala) eta Berdintasun Planak ezartzea gehienez epe honetan:**

- a) 2 urte.
- b) 4 urte.
- c) 6 urte.
- d) Urtebete.

**24. Arrisku bat larritasunaren ikuspuntutik kalifikatzeko**

- a) Kaltea gertatzeko probabilitatea bakarrik baloratuko da.
- b) Haren larritasuna bakarrik baloratuko da.
- c) Kaltea gertatzeko probabilitatea eta haren larritasuna batera baloratuko dira.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**25. Euskal botere eta administrazio publikoen jardueran genero-ikuspegia txertatzeko neurriei dagokienez, zer epe du Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi bakoitzaren hasieratik gizonen eta emakumeen berdintasunerako plan orokorra onartzeko?**

- a) Urtebete.
- b) 4 hilabete.
- c) 6 hilabete.
- d) Hilabete.

**26. Zirkulatzeko bideak: Kanpoko ateen eta korridoreen gutxieneko zabalera hau izango da:**

- a) 80 zentimetro eta metro bat, hurrenez hurren.
- b) Metro bat bi kasuetan.
- c) 60 cm eta 2,5 metro, hurrenez hurren.
- d) Ez dago gutxieneko distantziarik.

**27. Seinaleak**

- a) Babes kolektiboko neurri teknikoen eta antolamenduzkoen ordezkoko neurri bat da.
- b) Langileen laneko segurtasun eta osasunaren arloko prestakuntza eta informazioaren ordezkoko neurri bat da.
- c) Seinaleak ez dira hartuko babes kolektiboko neurri tekniko eta antolamenduzkoen ordezkoko neurritzat, eta erabili beharko dira baldin eta neurri horien bidez arriskuak ezabatzea edo behar bezala murriztea ezinezkoa izan bada.
- d) Aurreko erantzunak ez dira zuzenak.

**28. Suteen aurkako ekipamenduei buruzko seinaleak:**

- a) Piktograma zuria hondo gorriaren gainean.
- b) Piktograma zuria hondo urdinaren gainean.

- c) Piktograma beltza hondo zuriaren gainean.
- d) Piktograma beltza hondo horiaren gainean.

**29. II. motako hartzaileen zuzeneko kontaktuen aurrean hartu beharreko segurtasun-neurriak:**

- a) Segurtasuneko oso tentsio baxuan konektatzea.
- b) Ez da beste babesik behar.
- c) Babeseko lur-konexiora konektatzea.
- d) Lurretik isolatutako eremu bat behar da.

**30. ERABAKIA, 2014ko uztailaren 10ekoa, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluarena, lan-arloan izandako jazarpen-salaketak konpontzeari buruzko akordioa berresteko: Arbitraje Batzordea hitz egin eta botoa eman dezaketen lau pertsonak osatzen dute:**

- a) UPV/EHUren 4 ordezkari.
- b) UPV/EHUren 2 ordezkari eta sindikatuen 2 ordezkari.
- c) UPV/EHUren 3 ordezkari eta sindikatuen ordezkari bat.
- d) Sindikatuen 4 ordezkari.

**31. Prebentzio Zerbitzuen Araudia (39/1997 ED):**

- a) Prebentzio-jardueraren berezko eginkizunak betetzeko behar den gutxieneko prestakuntza ezartzen du, hiru mailatan banaturik: oinarrikoa, erdiko eta goi-mailakoa, eta azken horren espezialitateak.
- b) Arriskuen ebaluazioa ez du hartzen prebentzio-jardueraren abiapuntutzat.
- c) Jarduera-multzo jakin batean sartzea proposatzen du, eta ez haren kudeaketa-sistema orokorrean.
- d) Goi-mailari dagozkion funtzioak bakarrik zehazten ditu.

**32. Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako 4/2005 Legearen printzipio orokorrak hauek dira:**

- a) Genero-ikuspegia txertatzea; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea eta aukera-berdintasuna.
- b) Tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia errespetatzea; genero-ikuspegia integratzea; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea.
- c) Tratu-berdintasuna; aukera-berdintasuna; aniztasuna eta diferentzia errespetatzea; genero-ikuspegia integratzea; ekintza positiboa; sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea; ordezkari-tza orekatua eta koordinazioa eta lankidetzatza.
- d) Tratu-berdintasuna; ekintza positiboa; sexuaren araberako gizarte-rol eta estereotipoak ezabatzea; ordezkari-tza orekatua eta koordinazioa eta lankidetzatza.



**33. Euskal Funtzio Publikoaren Legearen arabera, funtzionarioek ez dute eskubiderik izango:**

- a) Duten lanpostuaren eta dagokien gizarte-aurreikuspeneko araubidearen arabera lansaria jasotzeko.
- b) Onartzen diren osasun-asistentzia eta gizarte-prestazioak hartzeko eta laneko segurtasun eta higiena izateko.
- c) Etengabeko lanbide-prestakuntza izateko.
- d) Aurreko hiruretarako eskubidea izango dute.

**34. UPV/EHUren gobernu-organoak**

- a) Gobernu Taldeak, Gobernu Kontseiluak, Klaustroak, Gizarte Kontseiluak eta Estatuetatik sortutako batzordeak osatzen dute.
- b) Unibertsitateko Klaustroa unibertsitateko kideen ordezkaritza-organo goren da Bere eskumenen eremuan hartzen dituen erabakiek kide anitzeko beste organo guztiak behartzeko indarra daukate.
- c) Gobernu Kontseiluak unibertsitateko politika orokorraren jarraibideak ezarri eta garatzen ditu, bai eta jarraibideak aplikatzeko prozedurak ere, irakaskuntzaren, ikerketaren, giza baliabideen eta baliabide ekonomikoen antolamenduaren arloan.
- d) Hirurak zuzenak dira.

**35. Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du arlo hauetan:**

- a) Irakaskuntza-, kultura-, arte-, ongintza- eta sorospen-izaerako nahiz antzeko fundazio eta elkarteak, fundazio eta elkarte horiek beren egitekoak nagusiki Euskadin betetzen dituzten bitartean.
- b) Autogobernatzeko erakundeen antolamendu, erregimen eta funtzionamendua, beti ere Estatutu honen arauen barruan.
- c) Zuzenbide substantibotik eta Euskadiren berezko antolamendutik datozen arau prozesalak eta prozedura administratibo eta ekonomiko-administratiboaren arauak.
- d) Aurreko hirurak zuzenak dira.

**36. Prebentzioa enpresaren kudeaketa-sistema orokorrean integratzeak hau esan nahi du:**

- a) Prebentzioa enpresako jardura guztietan sartzea.
- b) Prebentzioa enpresako hierarkia-maila guztietan sartzea.
- c) Prebentzioa enpresako jardura guztietan eta hierarkia-maila guztietan sartzea.
- d) Laneko arriskuen prebentziorako programa espezifikoa bat ezartzea, enpresa osoari eragingo diona.

**37. Fatxadak birgaitzen dituen enpresa batek bi langile kontratatu ditu aldi baterako laneko enpresa baten bidez.**

- a) Birgaitze-enpresak ziurtatu behar du bere esku jarritako langileak gaitzat jotzen direla osasun-azterketa baten bidez.
- b) Birgaitze-enpresak ziurtatu behar du bere esku jarritako langileek badituztela agintzen zaizkien lanak egiteko behar diren kualifikazioak eta gaitasunak.
- c) a) eta b) atalak bete behar dira.

- d) Aldi baterako laneko enpresen bidez ezin da langilerik kontratatu fatxadak birgaitzeko lanak egiteko.

**38. Zer arrisku ebaluatu behar dira?**

- a) Arrisku guztiak.
- b) Saihestu ezin diren arriskuak bakarrik.
- c) Istripu moduan gauzatu diren arriskuak.
- d) Garrantzitsu edo larri gisa kalifikatuta daudenak bakarrik.

**39. Baldin eta, lanaren ondorioz, pertsona batek gaixotasun profesionalen taulan ageri ez den gaixotasun bat hartzen badu, gaixotasun hori honelakotzat hartuko da:**

- a) Gaixotasun arrunta.
- b) Gaixotasun profesionala.
- c) Lan-istripua.
- d) Aurreko horietako batean ere ez dago sartuta.

**40. Langileen osasunari kalte egiten zaionean**

- a) Ez dago istripua ikertzeko betebeharririk.
- b) Istripuaren ikerketa kanpoko prebentzio-zerbitzuak egin behar du.
- c) Enpresaburuaren betebeharra hau besterik ez da: kaltea idatziz jakinaraztea, arauzko prozeduraren bidez.
- d) Enpresaburuak, jakinarazpen ofizialaz gainera, istripua ikertzeko betebeharra du, gertaeraren arrazoiei antzemateko.

**41. Lantokietako gutxieneko segurtasun- eta osasun-neurriak ezartzen dituen 486/97 Errege Dekretuak ez du kontuan hartzen:**

- a) Segurtasun estrukturala eta lan-eremuak.
- b) Lurzoruak, irekidurak eta barandak.
- c) Lanetik kanpo erabiltzen diren garraiobideak.
- d) Eskailerak, bideak eta ebakuaziorako irteerak.

**42. Aukeratu erantzunik onena sute-arriskuari dagokionez:**

- a) Erregaia, oxigenoa eta sutze-iturria baino ez dira behar sua sortzeko.
- b) Sugar-puntua (flash point) 70 °C-an duen substantzia erregai bat sukoitzat hartzen da.
- c) Erregaia, erregarria, kate-erreakzioa eta sutze-iturria baino ez dira behar sua sortzeko.
- d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**43. Urak baditu arriskuak zenbait su motaren aurka erabiltzen denean. Su hauetako zeinentzat ez da egia baieztapen hori?**

- a) Petroliotik eratorritako erregai likidoen suak.
- b) A motako suak.
- c) Tentsio elektrikoaren eraginpeko suak.
- d) D motako suak.

**44. Aukeratu erantzunik onena sute-arriskuari dagokionez:**

- a) Eskuzko itzalgailu eramangarri batek gutxienez 5 minutuko autonomia du.
- b) Mahuka malgua (45 mm) duten sute-ahoak erabat zabaldu behar dira erabili aurretik.
- c) Gas ez-toxikoak —hala nola N<sub>2</sub>-a edo CO<sub>2</sub>-a— erabiltzen dituzten uholde oso bidezko itzaltze-instalazio finakoak egokienak dira pertsonak dauden lokaletarako.
- d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**45. Obrako kargagailu bat:**

- a) Obrako materialak mugitzeko bakarrik erabil daiteke.
- b) Pertsonak jasotzeko gailutzat hartzen da.
- c) Gutxienez 50 cm-ko altuerako baranda bat izan behar du.
- d) Erabiltzaileak bere premietara egokitu dezake.

**46. Kargak zubi-garabiarekin garraiatzean:**

- a) Kargak poliki mugitu behar dira.
- b) Karga izendatua baino % 10 gehiago garraia daiteke.
- c) Karga ahalik eta altuenean garraiatu behar da.
- d) Karga aldi batez esekita utz daitezke.

**47. Enpresa batek 1644/2008 Errege Dekretuaren arabeko CE marka, adostasun-deklarazioa eta jarraibideen eskuliburua dituen makina bat erosten duenean:**

- a) Ez da beharrezkoa arriskuen ebaluazioan sartzea.
- b) Ez da babes-neurri gehigarririk ezarri behar.
- c) Arriskuen ebaluazioan kontuan hartu behar da, eta dagozkion prebentzio- eta babes-neurriak ezarri behar dira.
- d) Arriskuak ebaluatu behar dira soilik baldin eta 1644/2008 Errege Dekretuaren IV. eranskinean jasota badago.

**48. Zer alde dago zuzeneko eta zeharkako kontaktu elektrikoaren artean?**

- a) Bat ere ez, berdinak dira.
- b) Zuzeneko kontaktua kable elektrikoetan soilik sortzen da, eta zeharkako kontaktua koadro elektrikoetan soilik.
- c) Zuzeneko kontaktua tentsioa izan ohi duten elementuak ukitzean gertatzen da, eta zeharkako kontaktua, berriz, tentsiorik izan behar ez lukeen baina akatsen baten ondorioz tentsioa duen elementu bat ukitzean.
- d) Zeharkako kontaktua tentsioa duen puntu bat pertsona baten bidez ukitzean gertatzen da, eta zuzeneko kontaktua, berriz, tentsioa duen puntua zuzenean ukitzean.

**49. Sute-sektore bat hau da:**

- a) Eraikin batean sute-arrisku handiena duen eremua.
- b) Eraikin baten barruan sutetik babestuen dagoen eremua.
- c) Eraikinaren barneko espazio bat, elementu suarekiko erresistentez mugatuta dagoena.

- d) Eraikin bateko eremu bat, langarreztagailu automatikoen bidez derrigor babestuta dagoena.

**50. Industria-eraikin batean suteen aurkako babes diseinatzeko:**

- a) Ez da beharrezkoa jakitea zer ekoizpen-prozesu egiten den barruan.
- b) Barruan egiten den ekoizpen-prozesua zein den besterik ez da jakin behar.
- c) Haren tipologia eta sute-arrisku intrintsekoaren maila karakterizatu behar dira.
- d) Nahitaez langarreztagailu automatikoak ezarri behar dira bertan.

**51. Hautatu aukerarik egokiena soldadura-lanei dagokienez**

- a) Soldaduran, zeharkako kontaktu elektriko deritzo soldadura-lana egiten ari ez den langile batek jasotzen duen kontaktu elektrikoari.
- b) Ganga edo sabaiko kanpaiak dira egokienak, haietan keak modu naturalean igotzera jotzen duelako.
- c) Soldadura oxiazetilenikoan, botila beteak eta hutsak bereizita biltegiratu behar dira.
- d) Zeharkako kontaktu elektrikoa deritzo kabletan isolamendua hondatua duen eremu batekin kontaktua egiteari.

**52. Zer agirik ezartzen ditu langileak arrisku elektrikotik babesteko gutxieneko xedapenak?**

- a) Laneko Segurtasunari buruzko ordenantza.
- b) 614/2001 Errege Dekretua.
- c) Behe Tentsioko Erregelamendua.
- d) Esparru-hitzarmena.

**53. RAPQ (656/2017 ED) produktu kimikoak biltegiratzeko erregelamenduaren aplikazio-eremu hauetako zein ez da zuzena?**

- a) Etileno oxidoa ontzi finkoetan biltegiratzea.
- b) Produktu kimiko arriskutsuak errepidez, trenbidez, itsasoz edo airez garraiatzean ibilgailu, bagoi, zisterna eta edukiontzietan biltegiratzea.
- c) Amoniako anhidroa biltegiratzea.
- d) Gasak presio-ontzi mugigarrietan biltegiratzea.

**54. Zer alderdi hartzen dira kontuan produktu arriskutsuen biltegiratze bati RAPQ erregelamendua aplikatzen zaion ala ez kalkulatzeko?**

- a) Arriskua eta produktu kantitatea adierazten dituzten H esaldiak.
- b) Arriskua eta produktu kantitatea adierazten dituzten P esaldiak.
- c) Arriskua eta sugar-puntua adierazten dituzten H esaldiak.
- d) Arriskua eta sugar-puntua adierazten dituzten P esaldiak.

**55. Larrialdietako planen testuinguruan, aukeratu erantzunik egokiena**

- a) Barruko Larrialdietako Plana prestatu eta ezartzeko azken arduraduna larrialdietako burua da.
- b) Barruko Larrialdietako Plana ezartzeko, hasieratik simulazioak egitea gomendatzen da, langileei jakinarazi gabe.
- c) Barruko Larrialdietako Plana funtsezko eduki hauekin egiten den dokumentu bat da: instalazioen deskribapena, babes-baliabideak, arrisku posibleak eta larrialdietan jarduteko prozedurak, baina ez da erabilgarria enpresan behar bezala ezarrita eta mantenduta ez badago.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**56. Espazio konfinatuetan atmosfera arriskutsuen eraginpean egotearen ondorioz sortutako arriskuei dagokienez:**

- a) Itotzeko arriskua, eta beraz arnas ekipamendua erabili beharra, % 19,5etik beherako O<sub>2</sub>-bolumena duten atmosferetan agertzen da.
- b) Sute- edo leherketa-arriskua O<sub>2</sub>-bolumena % 23,5 baino handiagoa denean agertzen da.
- c) Substantzia toxikoaren kontzentrazioa laneko esposizio-muga (LEM) baino handiagoa denean, intoxikatze arriskua dago.
- d) Hirurak zuzenak dira.

**57. Itzalgailu hauetatik, zein da sute elektriko baterako gutxien egokia?**

- a) Elur karbonikoa.
- b) Karbono dioxidoa.
- c) Hauts balioaniztuna.
- d) Anhidrido karbonikoa.

**58. Substantzia erregai baten autosutze-tenperatura 405 °C bada, substantzia hori tenperatura horretan:**

- a) Kanpoko aktibazio-energiarik gabe erretzeko gai da.
- b) Airearekin nahasten bada eta aktibazio-energia nahikoa ematen bazaio, erretzeko gai da.
- c) Ezin da erre, goiko sukoitasun-muga gainditzen duelako.
- d) Ezin da erre, ez delako iristen beheko sukoitasun-mugara.

**59. Zein da baieztapen zuzena espazio konfinatuetan lan egiten denean non substantzia arriskutsuak ezin baitira murriztu beheko leherkortasun-mugatik behera?**

- a) Lanak ezin dira egin biltegiaren edo esparruaren barnean, leherketa bat gertatzeko arriskua baitago.

- b) Erregariaren gainean jardun daiteke, airea gas geldoz ordeztuz eta langileei ekipamendu autonomoak edo erdiautonomoak emanaz.
- c) Nahikoa izango da espazio konfinatuaren hezetasun erlatiboa igotzea, lehertzeko arriskua saihesteko.
- d) Leherkortasun-neurgailuak erabiliko dira neurketa puntualak egiteko, eta agente kimiko sukoiaren beheko leherkortasun-mugara iristen dela neurtzen denean, lan-esparrutik atera behar da.

**60. Plataforma jasotzaileen operadoreen prestakuntza legez zehaztuta dago Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legean eta Lan-ekipamenduei buruzko 1215/1997 Errege Dekretuan. Legeria horren arabera:**

- a) Lan-ekipamendu bat erabiltzeak langileen segurtasunerako eta osasunerako arrisku espezifiko bat ekar badezake, enpresaburuak beharrezko neurriak hartuko ditu lan-ekipamendu hori erabiltzeko ardura dutenek bakarrik erabil dezaten.
- b) Lan-ekipamendu bat erabiltzeak langileen segurtasunerako eta osasunerako arrisku espezifiko bat ekar badezake, ekipamendu hori erabiltzeko legez gaitutako langileak halaber daude zuzenean gaituta konponketa-, eraldaketa-, mantentze- edo kontserbazio-lanak egiteko.
- c) Lan-ekipamendu bat erabiltzeak langileen segurtasunerako eta osasunerako arrisku espezifiko bat ekar badezake, enpresaburuak beharrezko neurriak hartuko ditu konponketa-, eraldaketa-, mantentze- edo kontserbazio-lanak horretarako berariaz gaituta dauden langileek egin ditzaten.
- d) a) eta c) erantzunak zuzenak dira.

**61. Nola egingo dira langileen segurtasunerako arriskutsuak izan daitezkeen lan-ekipamenduak mantentzeko, doitzeko, desblokeatzeko, gainbegiratzeko edo konpontzeko lanak?**

- a) Ekipamendua gelditu edo deskonektatu ondoren eta hondar-energia arriskutsurik ez dagoela egiaztatu ondoren.
- b) Nahikoa da ekipamendua gelditzea edo deskonektatzea.
- c) Ekipamendua gelditu edo deskonektatu ondoren, hondar-energia arriskutsurik ez dagoela egiaztatu ondoren eta hura abian jartzea edo nahi gabe konektatzea saihesteko beharrezko neurriak hartu ondoren.
- d) Ekipamendua gelditu edo deskonektatu ondoren, hondar-energia arriskutsurik ez dagoela egiaztatu ondoren eta lan-eremua jendez hustu ondoren.

**62. Zer arrisku ebaluatu behar dira agente kimiko arriskutsuengatik (haiekiko esposizioarekin edo gabe)?**

- a) Arnastearen, azala edo begiak ukitzearen eta irenstearen ondoriozko arriskuak.
- b) Larruazalean barrena xurgatzearen eta bide parenteraletik sartzearen ondoriozko arriskuak.

- c) Sute- eta/edo leherketa-arriskua, bai eta erreakzio kimiko arriskutsuak ere.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**63. Presiopeko ekipamenduak instalatu, martxan jarri, haien aldizkako ikuskapenak egin, konpondu eta aldatzeko baldintzak ezartzen dituen erregelamenduak (2060/2008 ED) halakotzat hartzen ditu tresna, presiopeko ekipamendu, multzo, hodi, presiopeko ontzi simple edo garraiarri guztiak baldin eta haien presio maximo onargarria hau baino handiagoa bada:**

- a) 0,05 bar.
- b) 0,5 bar.
- c) 5 bar.
- d) 50 bar.

**64. Zer esan nahi du "aginte bikoitza" terminoak?**

- a) Esaten da sistema aginte bikoitzekoa dela oinarekin edo eskuarekin manipula daitekeenean.
- b) Segurtasun handiagoa izateko nahitaez bi langilek aldi berean erabili behar duten gailua da.
- c) Bi eskuak erabiltzea eskatzen duen gailua da, eskuetakoren bat kontaktu-puntura hurbiltzea saihesteko.
- d) Aurreko hiru aukeretako edozeini deitzen zaio horrela.

**65. Zer dira katigagailuak?**

- a) Makina behar ez denean abian jartzea eragozten duten giltzak.
- b) Babes-sistemak irekitzea galarazten duten giltzak.
- c) Makina funtzionatzen ari den bitartean funtzionatzeko modua aldatzea eragozten duten giltzak.
- d) Hiru aukerak zuzenak dira.

**66. Baieztapen hauetako zein da zuzena lehortzeko arriskuari dagokionez?**

- a) Deflagrazioak detonazioak baino abiadura handiagoan gertatzen dira, baina presio-uhin txikiagoa sortzen dute; beraz, ez dira hain suntsitzaileak.
- b) Sugar-frontearen aitzinamendu-abiadura 1 cm/s duen errekuntza-fenomenoa ezin da sailkatu ez sute gisa ez detonazio gisa.
- c) Likido oso sukoiek, hala nola gasolinak, leherketa-arrisku txikia dute tanga itxietan presio atmosferikoan biltegitratzen direnean.
- d) Itxuraz kalterik egiten ez duten solidoek, hala nola irinak edo esne-hautsak, leherketa bortitzak eragin ditzakete esekiduran jartzen badira.

**67. Orga jasotzaileekin lan egiteari dagokionez, adierazi baieztapen hauetatik zein ez den egia:**

- a) Baimendutako langileek baino ezin dute gidatu.

- b) Urkilak ahalik eta baxuen daudela zirkulatu behar da.
- c) Ez da 20 km/h-tik gora ibili behar kanpoko espazioetan edo 10 km/h-tik gora barneko espazioetan.
- d) Masta atzerantz ahal den gehiena eramanda zirkulatu behar da.

**68. Zer da aginte sentikor bat?**

- a) Pertsona batek edo haren gorputz-atal batek segurtasun-muga bat gainditzen duenean makina bat edo haren elementuak geldiarazten dituen gailua.
- b) Makina batek edo haren elementuek ezarritako muga gainditzea eragozten duen gailua.
- c) Erremintarik erabili gabe ireki daitekeen babes giltzatua edo gidatua.
- d) Baldintza jakin batzuetan makina baten elementu batzuen funtzionamendua eragozteko gailua.

**69. Laneko arriskuen prebentzioaren arloko legeriaren ondorioetarako, noiz bihurtzen da enpresa bat makina baten fabrikatzaile?**

- a) Diseinatzen duenean, baina fabrikatzen ez duenean.
- b) 1215/1997 EDra egokitzen badu.
- c) Makinan funtsezko aldaketak egiten dituenean.
- d) a) eta c) zuzenak dira.

**70. Hautatu aukera egokia 1215/1997 EDko II. Eranskinari dagokionez**

- a) Eranskin horrek lan-ekipamenduak erabiltzeko baldintzak ezartzen ditu; beti aplikatzekoa da, eta langileen eskura dagoen edozein lan-ekipamenduri aplikatuko zaio.
- b) Eranskin horrek lan-ekipamenduak erabiltzeko baldintzak ezartzen ditu eta langileen eskura dagoen edozein lan-ekipamenduri aplikatzen zaio, baina ez da nahitaez bete beharrekoa baldin eta ekipamenduak 1644/2008 Errege Dekretua (makinak merkaturatzeko eta martxan jartzeko arauak ezartzen dituen) betetzen badu.
- c) Eranskin horrek lan-ekipamenduak erabiltzeko baldintzak ezartzen ditu eta langileen eskura dagoen edozein lan-ekipamenduri aplikatzen zaio, baina ez da nahitaez bete beharrekoa baldin eta arriskuen ebaluazioa egin bada, ekipamenduak fabrikatzailearen erabilera-eskuliburua badu eta operadoreak berariazko trebakuntza badu.
- d) Aurreko hirurak zuzenak dira.

**71. Hautatu aukera zuzena altuerako lanei dagokienez**

- a) Altuerako lana deritzo lurzorutik 2 metrotik gorako altueran dauden tokietan egiten den edozein lani.
- b) Altuerako lanak egiteko, gutxienez 3 langilek parte hartu beharko dute.
- c) Erorikoen kontrako ekipamenduei aldizkako egiaztapenak egingo zaizkie, gutxienez 6 hilean behin.



d) Guztiak egokiak dira.

**72. Hautatu aukera zuzena lanpostu batean sortutako ke kutsatzaileak erazteari dagokionez**

- a) Eratzketa-sistemaren eraginkortasuna kutsatzaileen sortze-puntuaren eta hartze-puntuaren arteko hurbiltasunaren arabera da.
- b) Ganga edo sabaiko kanpaiak dira egokiak, keak ez duelako zirkulatu langilearen aurpegiaren aurretik.
- c) Sistema eramangarriak kanpoaldean bakarrik dira gomendagarriak.
- d) Eratzketa lokalizatua izanez gero, ez da beharrezkoa lanlekua behar bezala aireztatzea.

**73. Hautatu aukera zuzena segurtasun-datuaren fitxerari dagokionez**

- a) Produktu korrosiboetarako edo leherketa-arriskua dutenetarako baino ez dira beharrezkoak.
- b) Produktu hori manipulatzeko moduari buruzko informazio esklusiboa ematen dute.
- c) Haien helburu nagusia fabrikatzailearen datuak ematea da, behar izanez gero harekin harremanetan jartzeko.
- d) Guztiak faltsuak dira.

**74. Hautatu aukera zuzena produktu kimikoen etiketatzeari dagokionez (1272/2008 CLP Erregelamendua)**

- a) Produktu sukoiaren arriskua adierazi behar da, baina ez produktu erregarriena.
- b) H esaldiek Arriskua adierazten dute, eta P esaldiek Arreta.
- c) Hondo hori zuria eta lauki beltza duten erronbo-formako piktogramak.
- d) Guztiak egiazkoak dira.

**75. Hautatu aukera zuzena altueratik erortzeko arriskuari dagokionez**

- a) Segurtasun-soka segurtasun-instalazio bat da, erortzeko arriskua dagoen lekuetatik mugitzeko aukera ematen duena eta beti horizontala dena.
- b) Gerrikoak arnesak bezain eraginkorrak dira eroriz gero, eta horregatik batzuk zein besteak erabil daitezke.
- c) Segurtasun-sokak horizontalak edo bertikalak izan daitezke, eta kablez edo sokaz eginak.
- d) a eta b erantzunak egiazkoak dira.

**76. Alderdi psikosozialak arautzen dituen legeko xedapen espezifikoak hau da:**

- a) 486/1997 Errege Dekretua.
- b) 171/2004 Errege Dekretua.
- c) 455/1998 Errege Dekretua.
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**77. LSHIN institutuaren datuak bistaratzeko pantailen gida teknikoan ezartzen denaren arabera, datuak bistaratzeko pantailak dituzten lanpostuetako soinu-maila jarraitu baliokideak, lan zail eta konplexuetarako (kontzentrazioa behar dutenentarako), ez du balio hau gainditu behar:**

- a) 80 dB(A).
- b) 65 dB(A).
- c) 55 dB(A).
- d) 45 dB(A).

**78. 374/2001 Errege Dekretuak ezartzen du debekatuta dagoela lanean agente kimiko batzuk ekoiztea, fabrikatzea edo erabiltzea. Haien artean, hauek:**

- a) Bentzenoa.
- b) Bentzidina eta haren gatzak.
- c) Berun ez-organikoa eta haren deribatuak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**79. Iraupen laburreko esposizioa da agente kimikoak langilearen arnasketa-eremuan duen batez besteko kontzentrazioa, aldi honetan, edozein unetan, neurtua edo kalkulatua:**

- a) 30 minutu lanaldian zehar.
- b) 15 minutu lanaldian zehar.
- c) 10 minutu lanaldian zehar.
- d) 5 minutu lanaldian zehar.

**80. Enpresaburuak, agente kartzinogeno edo mutagenoen ondorioz kutsatzeko arriskua dagoen jarduera orotan, behar diren neurriak hartu beharko ditu, honetarako:**

- a) Arrisku hori duten lan-eremuetan langileek jatea, edatea edo erretzea debekatzeko.
- b) Langileari babes-arropa egokia edo bestelako arropa berezi egokia emateko.
- c) Langileek erabiltzeko komun eta garbigela egokiak izateko.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**81. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Institutu Nazionalaren Gida Teknikoaren arabera, hauek guztiak har daitezke bistaratze-pantaila duten ekipamenduetako "langile" erabiltzailetzat:**

- a) Bistaratzeko pantailekin benetan lanean egunean 2 ordu baino gehiago edo astean 10 ordu baino gehiago ematen dutenak.
- b) Bistaratzeko pantailekin benetan lanean egunean 4 ordu baino gehiago edo astean 20 ordu baino gehiago ematen dutenak.
- c) 30 minutuz edo gehiagoz jarraian bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduak erabili ohi dituztenak.
- d) 45 minutuz edo gehiagoz jarraian bistaratze-pantailak dituzten ekipamenduak erabili ohi dituztenak.

**82. Langileen neke mentalaren maila aztertzeko, faktore hauek azertu behar dira:**

- a) Lanaren edukia, faktore psikosozialak eta antolamendukoak, lanpostua langileari fisikoki egokituta dagoen eta langileak erantzuteko duen gaitasuna.
- b) Lanaren edukia, lana egiten den tokiko ingurumen-baldintzak, faktore psikosozialak eta antolakuntzakoak, eta langileak erantzuteko duen gaitasuna.
- c) Lanaren edukia, lana egiten den tokiko ingurumen-baldintzak, faktore psikosozialak eta antolakuntzakoak, lanpostua langileari fisikoki egokituta dagoen eta langileak erantzuteko duen gaitasuna.
- d) Lanaren edukia, lana egiten den tokiko ingurumen-baldintzak, faktore psikosozialak, lanpostua langileari fisikoki egokituta dagoen eta langileak erantzuteko duen gaitasuna.

**83. Zer da 3. taldeko agente biologiko bat?**

- a) Gizakietan gaixotasun larri bat eragin dezakeena eta langileentzat arrisku larria dakarrena, komunitatera hedatzeko arriskuarekin, zeinarentzat profilaxia edo tratamendu eraginkorra izaten baita.
- b) Gizakietan gaixotasun larri bat eragiteaz gainera langileentzat arrisku larria dakarrena eta komunitatera hedatzeko probabilitate asko dituen, eta zeinarentzat ez baita izaten profilaxirik edo tratamendu eraginkorrik.
- c) Gizakietan gaixotasun larri bat eragin dezakeena eta langileentzat arriskutsua izan daitekeena, komunitatera hedatzeko probabilitate gutxi baditu ere, eta zeinarentzat profilaxia edo tratamendu eraginkorra izaten baita.
- d) Gizakietan gaixotasun bat eragiteko probabilitate gutxi dituen.

**84. Oro har, agente biologikoen eraginpean dauden langileen zerrenda eta historia medikoak gutxienez epe hauetan gorde behar dira:**

- a) 2 urte esposizioa amaitu ondoren.
- b) 5 urte esposizioa amaitu ondoren.
- c) 10 urte esposizioa amaitu ondoren.
- d) 60 urte esposizioa amaitu ondoren.

**85. REACH Europako Erregelamendua gai hauei buruzkoa da:**

- a) Agente kimikoak.
- b) Agente biologikoak.
- c) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia du, baina a) eta b) letretan adierazitakoez bestelako alderdi batzuk arautzen ditu.
- d) Ez du inolako erlaziorik laneko arriskuen prebentzioarekin.

**86. Energia gehien duten erradiazio ez-ionizatzailak hauek dira:**

- a) Erradiazio ultramoreak (UV).
- b) Erradiazio ikusgaiak (Vis).
- c) Mikrouhin-erradiazioak.
- d) Erradiazio infragorriak (IR).

**87. Erradiazio ultramoreen (UV) ondorioak**

- a) Termikoak dira; barne-organoen tenperatura igotzen dute, ez bakarrik azaletik.
- b) Korrante elektrikoak indultzeko ahalmenarekin eta horrek giza gorputzean izan ditzakeen ondorioekin dute zerikusia.
- c) Batez ere azalean eta begian gertatzen dira.
- d) Organismoa osatzen duten molekulak ionizatu eta alterazioak eragiten dituzte.

**88. Nola deritze modu espontaneoan edo erreakzio kimiko baten ondorioz ingurunean kalteak eragiteko moduko tenperatura, presio eta abiaduran dauden gasak aska ditzaketen substantzia (edo nahaste) solido edo likidoei?**

- a) Leherkorrak.
- b) Sukoiak.
- c) Erregarriak.
- d) Modu espontaneoan erreakzionatzen duten substantzia eta nahasteak (autorreaktiboak).

**89. Karasek-en eskaera-kontrol eremuan, item hauetako zein sailkatzen da "eskaeraren" barruan?**

- a) Nire lanak aukera ematen dit erabakiak nire kontura hartzeko.
- b) Erlojuaren kontra lan egin behar dut.
- c) Nire lanak trebakuntza handia eskatzen du.
- d) Eragin handia dut nire lanean gertatzen denaren gainean.

**90. Toxikoek organismoan dituzten efektuak aztertzean, baldin eta efektuaren intentsitatea esposizioarekiko independentea bada, hau da, jasotako dosiarekin erlazio gutxi badu, zer efektu mota da?**

- a) Efektu itzulgarria.
- b) Efektu sistemikoa.
- c) Efektu kronikoa.
- d) Efektu ez-graduatu.

**91. Esku-beso sistemari transmititutako bibrazioarako, hau da eguneroko esposizioaren muga-balio normalizatua zortzi orduko erreferentzia-aldi baterako:**

- a)  $2,5 \text{ m/s}^2$ .
- b)  $5 \text{ m/s}^2$ .
- c)  $7,5 \text{ m/s}^2$ .
- d)  $1'15 \text{ m/s}^2$ .

**92. -Defini al daiteke jazarpen morala laneko estres mota gisa, zeina ez baita gertatzen egindako lanarekin edo lanaren antolaketarekin zerikusia duten faktoreengatik bakarrik baizik eta baita enpresan/Administrazioan dauden harreman pertsonalengatik ere?**

- a) Ez, laneko estresak lanaren antolaketan bakarrik du jatorria.
- b) Ez, laneko estresak lankideen arteko harreman pertsonal kaltegarrien esparruan bakarrik du jatorria.

- c) Bai, jazarpenaren ezaugarri dira biktimari antolakuntza-neurrien bidez egindako erasoak eta pertsonaren harreman-esparruari egindako erasoak, arlo guztietan (lanekoa, pribatua, etab.).
- d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

**93. Amiantoarekin lan egiten denean, arnasbideak babesteko ekipamenduak erabiltzeko baldintzak hauek dira:**

- a) Ezin izango dira etengabe erabili, behar-beharrezkoa den denboran baino ez dira erabili behar, eta egunean 4 ordu gainditu gabe. Gainera, karga fisikoaren eta klima-baldintzen araberako atsedenaldiak aurreikusi beharko dira.
- b) Ezin izango dira etengabe erabili, behar-beharrezkoa den denboran baino ez dira erabili behar, eta egunean 3 ordu gainditu gabe. Gainera, karga fisikoaren eta klima-baldintzen araberako atsedenaldiak aurreikusi beharko dira.
- c) Ezin izango dira etengabe erabili, behar-beharrezkoa den denboran baino ez dira erabili behar, eta egunean 2 ordu gainditu gabe. Gainera, karga fisikoaren eta klima-baldintzen araberako atsedenaldiak aurreikusi beharko dira.
- d) Ezin izango dira etengabe erabili, behar-beharrezkoa den denboran baino ez dira erabili behar, eta egunean ordubete gainditu gabe. Gainera, karga fisikoaren eta klima-baldintzen araberako atsedenaldiak aurreikusi beharko dira.

**94. - Langile batek bere lanpostuan duen karga mentala kezagarria izan daiteke kasu hauetan:**

- a) Gainkarga mentalaren kasuan, hau da, langileari eragiketa asko oso denbora laburrean egitea eskatzen zaionean edo zeregin intelektualki zailak edo konplexuak planteatzen zaizkionean.
- b) Azpikarga mentalaren kasuan, hau da, langileak lan gutxi egin behar duenean edo asperdura eta monotonia eragiten dioten lan errazegiak egin behar dituzenean.
- c) Azpikarga edo gainkarga mentalaren kasuan, zeren eta bi kasuetan langileari kalte egin diezaioketen egoerak sor baitaitezke, hala nola nekea, hipozaintza, asperdura eta monotonia.
- d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

**95. Zer informazio erabili behar da erreferentzia gisa lantokian dagoen agente kimiko bat ebaluatzeko?**

- a) Europako Batzordeak arriskuaren ebaluazioari eta arriskua mugatzeko estrategiari buruz emandako gomendioetan ezarritakoa.
- b) EEren gomendiorik ez badago, substantzia berrien jakinarazpenari buruzko eta substantzia arriskutsuen sailkapenari, ontziratzeari eta etiketatzeari buruzko araudiaren arabera produktuak duen sailkapena.
- c) Produktuaren etiketa, segurtasun-datuen fitxa eta agentearen inguruneke eta biologiako muga-balioak.
- d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**96. Hauek dira erradiazio ionizatzaileen kasuan egin beharreko faseak eta erradiazio ionizatzaileen aurkako babes-neurriak:**

- Lan-baldintzak aldeztu aurretik ebaluatzea, eraginpeko langileak lan-baldintzen arabera kategoriatan sailkatzea eta osasuna zaintzea.
- Lantokiak eremura sailkatzea, kontuan harturik aurreikusitako urteko dosien ebaluazioa, kutsadura sakabanatzeko arriskua eta esposizio potentzialen probabilitatea eta magnitudea.
- Eraginpeko eremuei eta langileen kategoriei dagozkien zaintza- eta kontrol-arauak eta neurriak aplikatzea, bai eta banakako zaintza ere, beharrezkoa bada.
- Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**97. Zer da, erradiazio ionizatzaileen eraginpean egoteari dagokionez, eremu arautu bat, eta zer seinalerekin adierazten da?**

- Denbora-tarte laburretan urteko dosi-muga baino dosi handiagoa hartzeko arriskua dagoen eremua Hondo zuriaren gainean hirusta laranja bat duen seinale batez adierazten da.
- Urteko dosi-muga baino dosi handiagoa hartzeko arriskua dagoen eremua Hondo zuriaren gainean hirusta hori bat duen seinale batez adierazten da.
- Esposizio bakar batean urteko dosi-muga baino dosi handiagoa hartzeko arriskua dagoen eremua Hondo zuriaren gainean hirusta gorri bat duen seinale batez adierazten da.
- Eremu kontrolatua ez den eta 1 mSv/urte ofizial baino dosi eraginkor handiagoak jasotzeko posibilitatea dagoen eremua. Hondo zuriaren gainean hirusta gris/urdinxka bat duen seinale batez adierazten da.

**98. Hauen artean, zein da metodorik egokiena nahasmendu muskuloeskeletikoaren arriskua eskuaren eta eskumuturraren mailan ebaluatzeko?**

- OWAS (OVAKO WORKING POSTURE ANALYSIS SYSTEM).
- RULA (RAPID UPPER LIMB ASSESMENT).
- Kargak eskuz manipulatzeko gida.
- WGT (Wet Bulb Globe Thermometer).

**99. Arrisku muskuloeskeletikoa aztertzen duen RULA metodoak:**

- Azkar ebaluatzen ditu lan-populazio jakin batean lanean sortutako goiko gorputz-adarretako arazoaren arriskuak.
- Ez ditu identifikatzen laneko jarrerari lotutako muskulu-esfortzuak.
- Ez ditu kontuan hartzen esfortzu estatikoak, dinamikoak bakarrik hartzen ditu kontuan.
- Ez du kontuan hartzen "kargak eskuz manipulatzeko" efektua.

**100. Genero-faktorea eta arrisku muskuloeskeletikoa aztertuta, adierazi zein den erantzun zuzena:**

- Zeregin errepikakorrek prebalentzia handikoak dira eskulanak egiten diren lanpostuetan, eta, halako lanetan, nahasmenduen tasa handiagoa da emakumeen artean.
- Emakumeek arrisku ergonomiko txikiagoa dute lanpostu-estatus konparagarria duten gizonen baino.

- c) Abiadura handian lan egiten duten emakumeen kopurua gutxitu egin da 90eko hamarkadaren hasieratik.
- d) Ez dago genero-desberdintasunik arrisku muskuloeskeletikoari dagokionez.

### ERRESERBAKO GALDERAK

- 101. Kargak eskuz manipulatzearen arriskuak ebaluatu eta prebenitzeko gida teknikoak hau dio 1 eta 3 kg arteko pisuei buruz:**
- Ez dute arrisku muskuloesketikorik.
  - 487/1997 Errege Dekretua ez zaio aplikatzen egoera horri.
  - 487/1997 Errege Dekretua aplikatuko da.
  - 487/1997 Errege Dekretua aplikatuko da, baldin eta manipulazio-maiztasuna 10 aldiz/ordu eta bi ordu/egun baino handiagoa bada.
- 102. Pisu bat manipulatzeke eremu egokiena hau da:**
- Ukondoaren altueraren eta hatz-koskorren altueraren artean, gorputzari itsatsia.
  - Ukondoaren altueraren eta hatz-koskorren altueraren artean, gorputzetik aldendua.
  - Ukondoaren altueraren eta sorbaldaren altueraren artean, gorputzari itsatsia.
  - Ukondoaren altueraren eta sorbaldaren altueraren artean, gorputzetik aldendua.
- 103. Hiru pertsonaren artean karga bat manipulatzen denean, taldearen jasotze-ahalmena honetara murrizten da:**
- Banakako ahalmen teorikoen baturaren heren batera.
  - Banakako ahalmen teorikoen baturaren erdira.
  - Banakako ahalmen teorikoen baturaren bi herenera.
  - Ez da murrizten, banakako ahalmenen batura heren bat handitzen da.
- 104. Langile gazte osasuntsu, informatu eta trebatu batek 35 kg-ko pisu bat altxatzen du noizean behin, baldintza idealetan. Nola definituko zenuke egoera hori?**
- Ez du gainditzen gomendatutako gehieneko muga, eta ez dago zertan egoera zuzendu.
  - Ez du gainditzen gomendatutako gehieneko muga, baina egoera zuzendu behar da.
  - Egoera onartezina da, nahiz eta langilea gaztea eta osasuntsua izan eta lana noizean behin egin.
  - Zeregin hori debekatuta dago gure legerian.
- 105. Faktore psikosozialei eta gaixotasun kardiobaskularrari dagokienez, honako hau guztia egia da, hau izan ezik:**
- Gaixotasun koronarioaren parte bat saihestu daiteke, baldintza psikosozial okerragoak dituzten lanetan laneko tentsio-mailak murriztuz gero.
  - Miokardio-infartuak prebenitu ahal izango lirarteke, denboraldi jakin batean arrisku psikosozialaren eraginpean dauden pertsonak identifikatu ahal izango balira.
  - Norberak hautemandako osasunari buruzko datuak eta gaixotasun koronarioaren sintomak okerragoak dira gizarte-estatus handiko zereginetan.
  - Langileei zeregin mota gehiago eta beren lanari buruzko erabakiak hartzeko ahalmen handiagoa emateak gutxitu egiten du gaixotasun koronarioaren arriskua.
- 106. Kutsatzaile batekiko esposizio-maila honen araberakoa da:**
- Esposizioaren iraupena eta kontzentrazio-maila.
  - Egindako jarduera.



- c) Klima-baldintzak.
- d) Lanpostuaren ezaugarriak.

**107. Zer izen dute arnastu, irentsi edo larruazaletik kantitate txikitan sartuz gero efektu akutuak edo kronikoak edo are heriotza ere eragin dezaketen substantzia eta prestakinek?**

- a) Toxikoak.
- b) Kaltegarriak.
- c) Narritagarriak.
- d) Oso toxikoak.

**108. Tenperatura altuan lurrundutako eta partikula txikitan kondentsatutako partikula solidoez ari garenean, zer esan nahi dugu?**

- a) Hautsak.
- b) Lainoak.
- c) Keak.
- d) Hautsak eta keak definitzeko balio du.

**109. Inguruneko muga-balioak (IMB):**

- a) Aireko agente kimikoen kontzentrazioetarako erreferentzia-balioak dira.
- b) Lan-bizitzaren % 90ean eraginpean dauden langileen % 100 babestuko dela bermatzen duten baldintzak dira.
- c) Lan-bizitza osoan, egunez egun, eraginpean dauden langileen % 50 babestuko dela bermatzen duten baldintzak dira.
- d) a eta b erantzunak zuzenak dira.

**110. Amiantoa duen materiala noiz jotzen da hauskortzat?**

- a) Amianto-zuntzak materialaren azalean daudenean.
- b) Materiala ateratzeko tresna mekanikoak erabili behar direnean.
- c) Eskuz manipulatu disgrega daitekeenean.
- d) Enpresa fabrikatzaileak etiketan adierazten duenean.